


LHK-REN TXOSTENA, HAIN ZUZEN ERE, ENPRESA-ELKARTEEI ETA SINDIKATUEI BEREN JARDUERA-EREMUETAKO GAIEI LOTUTAKO PERTSONEN KUALIFIKAZIOA HOBETZEKO FORMAKUNTZA-PLANAK GARATZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEN DUEN DEKRETU-PROIEKTUARI BURUZKOA

Aurrekariak

2021eko martxoaren 6an, Lan eta Enplegu Saileko Lan Zuzendaritzak Dekretu Proiektuaren testua bidali dio Lan Harremanen Kontseiluari. Horren bidez, enpresa-elkarteei eta sindikatuei dirulaguntzak ematea arautzen da, beren jardueresparruko gaietan haiei lotutako pertsonen kualifikazioa hobetzeko formakuntza-planak garatzeko; horrela, lege arautzaileak ematen dizkion eskumenak erabiliz, LHK-k aginduzko txosten ez-loteslea egin ahal izango du haien edukiari buruz.

Dekretu Proiektu horrek gaur egun indarrean dagoen 191/2003 Dekretua ordeztzen du. Zioen azalpenean, erregulazio berriaren justifikazio gisa aipatzen dira funtsean formalak diren arazoak; besteak beste, bere xedapenak Dirulaguntzen Lege Orokorrarera eta hura garatzen duen erregelamendura egokitzeko beharra, eta urteko deialdirako eta laguntzak kudeatzeko eskumena dagokion organoari modu formalean esleitzeko komenigarritasuna, egitura organikoari buruzko egungo Dekretuaren arabera. Horrekin batera, aipatu da komenigarria dela arauaren alderdi tekniko batzuk berrikustea eta dirulaguntzak esleitzeko norgehiagokako prozedura erraztea.



Dekretu Proiektuaren azterketa eta balorazio teknikoa

Ohar orokorrak


1.-Bere konfigurazio orokorrean, araudi berriak gaur egungo Dekretuaren eskema konplexuari eusten dio, indarraldi mugagabeko xedapen batek (Dekretu Proiektu hau) osatua. Xedapen horrek esparru orokorra ezartzen du, eta laguntza-programaren funtsezko alderdiak finkatzen ditu –aldaezinak hurrengo deialdietan–, bai eta urteko agindu batzuk ere, programa hori gauzatzeko eta dagozkion dirulaguntzak aktibatzeke eta kudeatzeko.

Bistan denez, Dekretuan bertan arautzen diren alderdiak zein diren eta urteko ordenatik bereizten direnak zein diren erabakitzea, eskema horren barruan, oso garrantzitsua da. Bada, lehenengoak izaera iraunkorra duena definitzen du, eta bigarrenak deialdi batetik bestera alda daitekeena.

Lehenengo balorazio orokorrean, eta kasu bakoitzean nobedade garrantzitsuenak zein diren nabarmenduko bada ere, esan daiteke txostenerako bidalitako Dekretu Proiektuak aurrekoak baino erregulazio zabalagoa eta biziagoa duela, eta, horren ondorioz, formakuntzarako laguntzen programa honen barruan modu egonkorrean definitzen diren alderdiak areagotzen dituela.

2º.- Nahiz eta artikuluen zenbaketa eta ordena aldatu egin den, proiektu berriaren oinarritzko egiturak funtsezko lau alderdi ditu oraindik oinarrian: a) onuradun izan daitezkeen entitateen identifikazioa, hau da, dirulaguntzaren hartzailea edo hartzaileak, b) planetan antolatu direnen artean laguntza jaso lezaketan formakuntza-ekintzen definizioa (ekintza horien hartzaileekin batera), hau da, dirulaguntzaren xedea, c) aurkeztutako irizpideak eta prozedura; d) dirulaguntzak kuantifikatzeko elementuak, planek (eta dagozkien ekintzek) aurreko puntuan aipatutako oztopo kualitatiboa gaingaitzen dutenean.

Arauren bizkarrezurra osatzen duten lau alderdi horiez gain, garrantzitsua da egiaztatzea laguntza horiek administrazio berak edo beste administrazio batek edo beste erakunde publiko edo pribatu batzuek eman ditzaketan beste batzuekin bateragarriak diren; eta, ikusiko denez, horretan aldaketa garrantzitsu batzuk egin dira.



Berariazko oharrak

a) Dirulaguntzaren hartzailea edo hartzaileak


Proiektuak ez ditu aldatzen erakunde eskatzaileak dirulaguntza jasotzeko eskubidea izateko bete behar dituen funtsezko elementuak: izaera konfederala, lurraldez gaindiko jarduereremua (gutxienez Euskal Autonomia Erkidegoari dagokiona) eta ezarpen suprasektoriala. Sindikalen kasuan, Euskal Autonomia Erkidegoan duten ordezkartza-maila ere egiaztatu behar da. Maila hori, bere garaian adieraziko den bezala, bakoitzari dagokion gehienezko dirulaguntza kuantifikatzeko erabilitako baremo nagusietako bat da.

Gainerakoan, aztertzen ari garen zirriborroak berariaz jasotzen du, orain, baldintza gehigarri batzuk egiaztatu beharra: batzuk positiboak, hala nola zerga-betebeharrak eta gizarte-segurantzarekikoak eguneratuak izatea, eta beste batzuk negatiboak, hala nola berariazko zehapenik ez izatea edo dirulaguntzak eskuratzea eragozten duen legezko debekuren bat ez izatea. Horien artean, eta berritasun gisa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen seigarren xedapen gehigarrian xedatutakoarekin bat etorritz, sexu-bereizkeriarik egin ez izana.

b) Dirulaguntzaren xedea: planetan antolatutako berariazko formakuntza-ekintzak

Dekretu berriaren proiektuak, puntu honi dagokionez, aurrekoa baino erregulazio nabarmen zehatzagoa du (gaur egun indarrean dago). Bertan, dirulaguntzaren xede diren ekintzak antolatu eta multzokatzeaz gain, beste puntuazio-sistema bat aukeratu da, norgehiagokako irizpidea indartzera bideratua. Horri laguntzak kuantifikatzeko prozedura erantsi zaio, baina ez dago zuzenean lotuta lortutako azken puntuazioarekin.

Dirulaguntzaren xede diren ekintzak lau multzotan sailkatzen dira, nahiz eta guztiak plan beraren bidez artikulatzen diren formalki: i) ekintza presentzialak, ii) ekintza ez-presentzialak, iii) formakuntzarako materialak egitea eta iv) formakuntza erakunde eskatzailekoak ez diren hirugarrenen bidez egitea, nahiz eta hirugarrenen plataforma digitalen erabilera ekintza propio ez-presentzialen barruan sartzen den, eta horrek ondorio praktiko garrantzitsuak izan ditzakeen, IV. taldearen ekintzetara bideratu daitezkeen zenbatekoen mugak direla eta, Dekretu Proiektuaren 12.5. artikuluan adierazten denez. Horrekin, bada, dirulaguntza jaso lezaketen formakuntza-ekimenak ugaritu dira, eta egungo 191/2003 Dekretuko 3. artikuluan jasotakoei gehitu zaizkie; izan ere, artikulua honetan jasotzen dira baliabide materialak paperean



nahiz euskarri digitalean prestatzera bideratutakoak. Bestalde, zehatzago definitzen dira ekintza zehatzak lau multzoetako bakoitzari atxikitzeko irizpideak, multzook, kasu batzuetan, tratamendu bereizia baitute.

Ikuspegi teknikotik, erregulazio berri eta zehatzago horrek sor dezakeen arazoetako bat da “diruz lagundu beharreko gastuen” zerrenda irekia edo itxia dela, eta zerrenda hori berariaz jaso da 4.3. artikulua lehen hiru ataletan. Hau da, ekintza presentzialak, ekintza ez-presentzialak eta baliabide materialak.

Arauk erabiltzen duen adierazpenaren arabera (diruz lagundu beharreko gastuen artean “sartzen dira”...), badirudi ez dela zerrenda itxia edo “numerus clausus” bat, baizik eta diruz lagundu daitezkeen gastu batzuei buruzko zehaztapen positiboa, semantikoki sartzeak “multzo zabalago batean zerbait jartzea edo sartzea” esan nahi baitu. Nolanahi ere, eta arauaren asmoa baldin bada, hain zuzen ere, berariaz aipatzen direnak ez beste gastu batzuk nahitaez ez baztertzeara, orduan nahikoa litzateke “besteak beste” tartekia sartzea.

c) Planen balorazio kualitatiboa eta dirulaguntzaren kuantifikazioa

Dirulaguntza esleitzeko, dekretu berriak, aurrekoak bezala, bi une edo fase bereizten ditu:

c.1.- formakuntza-planak eta -ekintzak baloratzeko fasea

Lehenik eta behin, hiru kideko batzorde tekniko batek “ebalatu” behar ditu formakuntza-planak —edo, zehazkiago, lau ekintza-taldeetako bakoitza—, irizpide jakin batzuen arabera (Dekretuan finkatuta daude, eta, beraz, ezin dira aldatu deialdi desberdinetan zehar). Ebaluazio-irizpide horiek hiru dira: a) proposatutako ekintzak dekretuaren helburuetara egokitzea (50 puntu), b) erakundeak ekintza horiek garatzeko duen gaitasuna (25 puntu) eta c) erakunde eskatzailearen esperientzia (25 puntu). Horietatik abiatuta, ekintza-talde bakoitzerako azken puntuazioa lortzeko, urteko aginduetan ezartzen den baremoa aplikatuko da. Irizpide eta puntu bakoitzean eman daitezkeen gehieneko puntuekin ez bezala, baremo hau aldatu egin daiteke ekitaldi bakoitzean.

Nolanahi ere, puntuazio-sistema horrek orain nola funtzionatzen duen zehaztu behar da. Aztertutako proiektuak berrikuntza garrantzitsu bat du: formakuntza-plan eta -ekintzen arteko “kontraste edo konparazio” prozedura berezia, erakunde onuradunak hautatzeko sistema “norgehiagokako” prozedurarekin “lotzen” duena.




Horretarako, batzorde teknikoari esleitzen dio erakunde jakin batek proposatutako ekintza guztiak formakuntza-programaren berariazko helburura “egokitzen” diren egiaztatzeko funtzioa (hau da, Dekretuaren 2. Artikuluan zehaztutako helburuak). Horri esker, egokitze-eskakizun hori (irizpide kualitatiboa) betetzen duten proposamen-kopuru handiena (irizpide kuantitatiboa) aurkeztu duen erakunde eskatzailea zein den zehaztu daiteke (talde bakoitzaren barruan, enpresa eta sindikatuak daudela pentsatu behar da). Erakunde horrek ahalik eta puntuazio handiena jasotzen du (50 puntu), eta konparazio-elementu bihurtzen da gainerakoek puntuazioa finkatzeko; izan ere, horietako bakoitzak, hiruko erregela soil baten bidez, proportzioan dagokiona jasoko du, ondoen puntuatutako erakundeak aurkeztutako ekintza “egokien” kopuruarekin konparatuta.

Lehia-konkurrentziako prozedura edo eskatzaileen arteko konparazio erlatibo hori baloratu beharreko lehenengo irizpideari bakarrik aplikatzen zaio: ekintza formakuntza-programaren helburura egokitzea; beste biak (planak garatzeko gaitasuna eta egiaztatutako esperientzia) Dekretu Proiektuaren lehen xedapen iragankorrean ezarritako baremoak aplikatuz baloratzen dira (horren bidez antolatzen da 2021. urterako deialdia).

Nolanahi ere, eta atal hau bukatuta, puntuazio handiagoa lortzeak ez du esan nahi, nahitaez, dirulaguntza handiagoa jaso behar denik; izan ere, jarraian ikusiko dugunez, azkenean esleitutako zenbatekoa erakunde eskatzailearen ordezkagarritasun-mailaren arabera ere bada, oso modu esanguratsuan gainera.

Lehenengo fase hau, beraz, “baliozkotzeko” aurretiazko prozedura da, azken batean, edo, nahiago bada, diruz lagundu daitezkeen formakuntza-ekintza guztiei eska dakiekeen gutxieneko kalitate-estandar bat egiaztatzeko iragazkia. Fase honen helburua da plan bakoitzaren barruan gutxienez puntu erdiak lortzen ez dituzten ekintza-taldea edo taldeak baztertzea. Puntu horiek aldatu egiten dira ekintza-talde bakoitzean, ez baitira guztietan baloratzen hiru irizpideak. Zehazki, I. eta II. taldeetako ekintzak 100 puntura irits daitezke gehienez (50+25+25), eta III. eta IV. taldeetakoak, berriz, 75 puntura (50+25).

Atal honekin amaitzeko, eta dirulaguntzaren azken kuantifikaziorako irizpideak eta prozedura aztertu aurretik, azpimarratu behar da Dekretu Proiektuak (12. artikuluko lehen atalean) aukera ematen duela, halaber, ebaluazio-batzordeak modu arrazoituan baztertzeko ekintza zehatzen bat edo batzuk, eta *soilik dagokion dirulaguntza zenbatekoa den zehazteko*.



Arau-aurreikuspen hori, kuantifikaziorako sistema arautzen duen artikuluan formalki jasota dagoena baina, berez, hura baino lehenagoko izapidea dena, azken doikuntza moduko bat da dirulaguntza kuantifikatu aurretik, eta pentsatuta dago formakuntza-ekintzen multzo jakin batean, oro har, eskatzen diren gutxieneko puntuak gainditzen dituzten kasuetarako —eta horrek bermatzen du, lehen adierazitakoaren arabera, dirulaguntza eskuratzeko aukera—, Dekretuaren helburuekin bat ez datozen ekintza bat edo batzuk sartu ez direnean. Bide horretatik, eta haien talde osoa baztertu gabe, ekintza zehatz horiek erakunde bakoitzak aurkeztutako aurrekontutik ezabatuko lirateke, emandako dirulaguntzaren azken kuantifikazioa egitean.

c.2.- Dirulaguntzen zenbatekoa kuantifikatzeko eta zehazteko fasea


Jaso beharreko dirulaguntzaren kuantifikazioari dagokionez, aztertzen ari garen proiektuan ezarritako sistemak egungo Dekretuaren edukia errepikatzen du oinarrizko alderdietan, nahiz eta arau berriak dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa formakuntza-ekintzen plan eta/edo talde bakoitzerako aurrekontuan jasotako zenbatekoaren %100era arte zabaltzen duen (gaur egun %80ra mugatzen da), betiere, jakina, muga jakin batzuen barruan.

Muga horietako lehenengoa, eta agerikoena, zera da, aurkeztutako aurrekontuak ez ez dezala gainditu deialdi bakoitzerako ezarritako moduluak aplikatzearen ondoriozko gehieneko zenbatekoa.

Bigarrena, aurrekontu horrek ez dezala gainditu, aldi berean, erakunde eskatzaile bakoitzari legokiokeen "maximo teorikoa". Horretarako, Dekretuak lehen aldiz banatzen du formakuntza-ekintza horiek diruz laguntzeko zenbateko osoa (urteetan zehar alda daiteke kopuru hori, urteko deialdi-agindu bakoitzari baitagokio kopuru hori zehaztea) eskaera egin dezaketen bi erakundeen artean: enpresa-erakundeen eta sindikatuen artean.

Lehen bi muga horiek komunak dira erakunde eskatzaile guztientzat, baina Dekretuak hirugarren bat gehitzen du, eta hori, formalki behintzat, sindikatueibaino ez zaie aplikatuko. Izan ere, enpresa guztiei legokiokeen zenbateko globalaren barruan, bakar batek ere ezin du jaso EAEn egiaztatutako ordezkagarritasunaren arabera legokiokeena baino gehiago. Ordezkaritza hori, era berean, bulego sindikalean erregistratutako datu ofizialetatik eta, hala badagokio, bulego sindikalak eskaera egin aurreko urteko abenduko datu ofizialetatik abiatuta ezartzen da.

c.3.- Kasu jakin batzuetan dauden baliabideak berriro esleitzeko sistema subsidiarioa.



Azkenik, baliabideak berriro esleitzeko mekanismoa aipatu behar da (ixteko klausula moduko bat), laguntzak kuantifikatzeko sistema honi eranstean zaiona.


Formakuntza-planak eta -ekintzak ebaluatu ondoren, eta erakunde eskatzaile bakoitzerako dirulaguntzaren xede izan daitekeen gehienezko zenbatekoa zehaztu ondoren, gerta daiteke, aurkeztutako aurrekontuak ikusita, deialdi-aginduan ezarritako zenbateko globalarekiko soberakin egotea. Kasu horretan, Dekretu Proiektuak aurreikusten du soberakin horiek berriro esleitzea. Nola? Bada, lehenik eta behin, bi taldeetako erakundeen artean egingo da (enpresariala eta sindikala), eta hori beharrezkoa ez denean bakarrik (talde honetako plan eta ekintza guztiak erabat hornituta daudelako), besteari zuzendutako kopuruak gehitu ahal izango dira.

d) Bateragarritasun-erregimena

Azken puntu horri dagokionez, adierazi behar da, txostenaren helburu den Dekretu Proiektuan, 8. artikuluko bigarren paragrafoa ezabatu dela. Paragrafo horretan, berariazko arau bat ezartzen da, zeinak adierazten baitu bateraezinak direla laguntza horiek eta formakuntza-ekintza bera emateko Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkariak duten sindikatuentzako dirulaguntzen programaren bidez jaso daitezkeenak; egun, 2020ko uztailaren 31ko Aginduan daude jasota eta araututa (2020ko irailaren 1eko EHAA).

Bateragarritasuneko araubide berri horrek, beraz, erabat berrezartzen du laguntza hauek bateragarriak izateko irizpide orokorra; alderatuta administrazio publiko berak (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak) edo beste administrazio batek edo beste erakunde publiko edo pribatu batzuek eman dezaketenarekin, xede eta helburu berarekin, edo xede eta helburu desberdinekin, betiere, jaso beharreko zenbateko osoa dagokion ekintzaren kostu osoa baino handiagoa ez bada.

Apirilaren 22an bildu zen Lan Harremanen Kontseiluko Txostenen Batzordea. Bilera horretan, kideek beren jarrera azaldu zuten, enpresa-elkarteei eta sindikatuei dirulaguntzak ematea arautzen duen dekretua aldatzeko Dekretu Proiektuari dagokionez, beraien jarduera-esparruko gaietan haiei lotutako pertsonen kualifikazioa hobetzeko formakuntza-planak garatzeko.



Alegazioak Dekretu Proiektuaren testuari buruz

Denontzako oharrak

Lehen atal honetan jasotzen diren gogoetak Txostenen Batzordeko kide guztiek partekatzen dituzte

1.- Formakuntza-planak finantzatzeko dirulaguntzen zenbatekoari buruzkoak.

Bai barneko formakuntza, bai formakuntza-ekintzetarako ezarritako moduluak finantzatzeko aurrekontuko partida berrikusi eta eguneratu egin beharko litzateke, programa abian jarri zenetik ia bi hamarkada igaro baitira.

2.- Dekretu Proiektuaren alderdi tekniko batzuei buruzkoak.

2.1.- Dirulaguntza jaso dezaketen gastuei buruzkoak.


Txostena egiteko Kontseilu honetara bidali den testuan (bereziki diruz lagun daitezkeen formakuntza-plan eta -ekintzei buruzko laugarren artikuluan), atal batzuetan, honako adierazpen hau erabiltzen da: "...diruz lagundu beharreko gastuen artean sartzen dira".

Txostenen Batzordeko kide guztiek diote zerrenda horrek ez duela zehatza edo mugatua izan behar, izan ere, badaude –edo sor litezke– Dekretuan berariaz jaso ez diren beste gastu batzuk, baina guztiz justifikatuak eta proposatutako formakuntza-ekintzen ezaugarriekin bat datozenak.

Nahiz eta Dekretu Proiektuaren testutik nahitaez ondorioztatzen ez den gastu-zerrenda hori "numerus clausus" kasu gisa konfiguratzeko borondatea dagoela, eta, beraz, ezin dela handitu, komeni da hori argitzea, idazketa irekiago baten bidez, klausula orokor baten bidez edo adierazpen ez-mugatzaile baten bidez, hala nola "besteak beste..." edo antzeko baten bidez.

Bestalde, txosten-batzordeko kideen iritziz, erakunde onuradunak antzemandako beharren arabera, formakuntza-planak gauzatzean zenbait ekintza zehatz ordeztu edo egokitu beharra ere planteatu daiteke. Administrazioak bere gain hartu beharko luke aukera hori, arauaren interpretazio malgua eginez, egungo testuarekin egiten denaren antzekoa, betiere eskatzen den kalitate-maila mantentzen bada eta dagokion dirulaguntzaren bidez emandako zenbateko osoa gainditzen ez bada.

2.2.- Balorazio-batzordeak egokitzen dituen ekintza gehien aurkezten dituen erakundeari gehieneko puntuazioa (50 puntu) esleitzeko sistemari buruz.



Txostenen Batzordeko kideek uste dute irizpide kuantitatibo soil bat (esklusiboki) erabiltzeak beste alderdi kualitatiboago batzuk baztertzen dituela, hala nola proposamen guztietatik baztertutako ekintzen ehunekoa. Ikuspuntu horretatik, egokitzat jotzen dute bi irizpideak konbinatuko dituen formula batean lan egitea; modu horretara, elementu kuantitatiboa (ekintza egokien kopuru handiagoa) lehenetsuzko irizpide gisa erabili ahal izango da, baina aintzat hartu beharko da, adibidez, baztertutako ekintzek ehuneko jakin bat gainditzen ez dutela.

3.- Dirulaguntza kuantifikatzeko irizpideei buruz.

Erakunde eskatzaileei azkenean esleitzen zaien dirulaguntza kuantifikatzeko, Dekretu Proiektuak bata besteari lotutako hainbat irizpide erabiltzen ditu: lehenengoa, arrazoen azalpenaren arabera norgehiagokako ereduari dagokiona, planaren “homologaziorako” mekanismo gisa erabiltzen da, horren bidez baztertu egiten baitira gutxieneko puntuazioa lortzen ez duten planak (eta ekintza-taldeak). Beraz, ulertu behar da lehenengo iragazki hori gainditzeak kalitate-estandar bat bermatzen duela, eta estandar horrek berak justifikatzen du dirulaguntza eskuratzeko aukera. Hala ere, dirulaguntzaren zenbatekoa beste bi irizpide gehigarriren arabera zehazten da: urteko deialdi-aginduan ezartzen diren gehieneko modulu ekonomikoen zenbatekoa eta, sindikatuen kasuan, horietako bakoitzak egiaztatutako ordezkari-tasa-maila (bigarren muga gisa).


Ikuspegi horretatik, eta Lan Harremanen Kontseiluko Txostenen Batzordeko kideen iritziz, Dekretu Proiektuaren 12.3 artikuluko b) atalean aurreikusitako kasuak ez du justifikaziorik.

Hain zuzen ere, “plana eskasa” izateagatik dirulaguntza berriro murrizteko aukerak ahaztu egiten du plana homologatua izan dela (eta, beraz, osotasunean egokia den plan gisa onartu dela) eta azkenean ematen den dirulaguntza berrikusi eta, hala badagokio, murriztu egin dela, aipatu diren beste bi irizpide gehigarriak aplikatuz. Beraz, azken bide horretatik beste edozein murrizketa egiteak ez du zentzurik.

Berariazko oharrak

Atal honetan, Txostenen Batzordeko kideren batek espresuki egindako eskaeraren arabera txostenean jaso behar diren alegazioak baino ez dira jasotzen, bere jarrera partikularra azaltzeko.

Alde horretatik, LAB sindikatuak izendatutako Txostenen Batzordeko kideak adierazi nahi du berariaz gaitzesten duela erakunde ordezkari-tasaren mende fundazioak (txostena egin dezan, Kontseiluari bidalitako aurreko erreforma-proiektuan



sartuta zeudenak) dagozkien dirulaguntzak eskuratzeko legitimatutako subjektuen artean ezabatzea.


Halaber, adierazten du ez dagoela ados sindikatu eta enpresa-elkarteen arteko partida orokorra banatzeko sistemarekin.

Lehenik eta behin, talde bakoitzaren egoera (sindikatuena eta enpresa-elkarteena, dirulaguntzaren hartzaileena) ez delako homogenea. Banaketa bidezkoagoa eta errealitate horretara egokituagoa egiteko, ehuneko desberdinak ezarri beharko lirateke, alde batean sindikatu asko daudelako, eta bestean, aldiz, enpresa-konfederazio bakar bat dagoelako laguntzen onuradun potentzial gisa. Errealitate diferentzial horri lotuta, bere erakundeak bere garaian jada adierazi zuen banaketa-irizpideak haxe izan behar zuela: %70 sindikatu guztientzat eta %30 enpresentzat.

Bigarrenik, nolana ere, talde baten eta bestearen arteko ehuneko banaketa bereizia modu egonkorrean finkatu beharko litzatekeelako Dekretuan (hurrengo deialdien esparru iraunkorra zehazten duen araua baita), aurreko erreforma-proiektuak egiten zuen bezala. Hori dela eta, LABek adierazi du uko egiten diola urteko aginduetan ehuneko horien zehaztapena eskuordetzen duen sistema bati; gainera, ez dago irizpide argirik eta denboran zehar nolabaiteko egonkortasunik duenik bi talde eskatzaileen artean bidezko banaketa egiteko.

Halaber, “norgehiagokako” sistema kuantitatibo soil bat baztertzeko du sindikatu horrek. Sistema hori ahalik eta formakuntza-ekintza “egoki” gehien aurkeztean oinarritzen da, ebaluazio-batzorde baten irizpidearen arabera. Ebaluazio-batzorde horren analisi-parametroak ez dira Dekretuan azaltzen, eta, beraz, zehaztu gabe daude. Haren iritziz, erakunde eskatzaile bakoitzari eman beharreko dirulaguntzaren azken zenbatekoa ez litzateke zehaztu beharko Dekretuaren beharretara egokitutako irizpide abstraktu baten arabera; Dekretuaren behar objektiboen arabera zehaztu beharko litzateke zenbateko hori, izan ere, ordezkagarritasun-mailan soilik oinarritutako banaketa-eredua sortu behar da, parametro objektiboagoa baita.

Azkenik, eta horrek ez du esan nahi Dekretu Proiektuaren testuarekin desadostasuna dagoenik, ahalmen hori 17. artikuluko 2. Atalean berariaz jasotzen baita, LABek azpimarratu nahi du garrantzitsua dela laguntzak ezarri diren helburuetarako benetan erabiltzen direla zaintzeko beharrezkoak diren kontrolak ezartzea.



IRIZPENA

Alde batera utzi gabe Txosten honetan dagokion atalean jaso diren ohar komunak (alde batetik, Kontseiluari bidalitako erreforma-proiektuaren alderdi tekniko batzuei buruzkoak dira, eta, bestetik, hurrengo deialdietan dirulaguntza globalaren zenbatekoa eta xedapen iragankorreen ezarritako modulu ekonomikoak handitzeko beharrari buruzkoak), Confebask, CCOO eta UGTk izendatutako Lan Harremanen Kontseiluko Txostenen Batzordeko kideek, aurkeztutako Dekretu Proiektuaren testua aztertu ondoren, edukiarekin bat datozela adierazi dute.

Bestalde, LAB sindikatuak izendatutako batzordekideak bere botoa adierazi du (aurkakoa), txosten honetako berariazko alegazioen atalean azaldu diren arrazoiengatik.

Horrenbestez, eta Lan Harremanen Kontseiluaren 4/2012 Legea garatzen duen 434/2013 Dekretuaren 8.3 artikuluan erabakiak hartzeko ezarritako arauekin bat, IRIZPEN hau Lan Harremanen Kontseiluko Txostenen Batzordeko kideen gehiengoz onartu da.

Bilbon, 2021eko apirilaren 22an.